

## I. ERANSKINA

### IKUSKATZAILE JAKINARAZLE BAT HAUTATZEKO DEIALDIA ETA OINARRI ARAUTZAILEAK.

#### 1.- Deialdiaren helburua

Deialdi honen xedea da, ikuskatzaile -jakinarazle bat hautatzea, horretarako, dagokion hautaketa prozesua jarraituko delarik.

#### 2.- Eginkizunak

##### EGINKIZUN NAGUSIAK:

##### HIRIGINTZA:

- Lehen okupazioko baimena emateko, obren bukaera egiaztatzeke etab... beharrezkoak diren ikuskapenak egin.
- Hirigintzako arau-hauste salaketak direla-eta aktak jaso eta ikuskapenak egin.
- Obrak eta jarduerak eskatutako baimenetara egokitzen diren ikuskatu, teknikoaren begiradapean.
- Bertara joanda konprobatu lokal komertzial eta lantegietako irekiera-baimena lortzeko aurkeztutako dokumentazioa zuzena den ala ez.
- Obra eta eraikuntzetan hartu beharreko babes-neurriak betetzen diren ala ez zaindu.

##### INGURUMENA-LANDA GARAPENA:

- Auzobideen erabilera arautuko duen ordenantzaren kontrola eta jarraipena: baimen berezien kontrola eta jarraipen lanak (batez ere, pistak ikuskatzea baso aprobetxamenduak egin aurretik eta ondoren)
- Auzoetako obra-inbertsioak ikuskatzea: auzo-bideetako lanak, azpiegiturak (ur-hornidura, saneamendu sarea, argiteria) egoera ikusi, lanen jarraipena egin...
- Auzokonpost guneetako jardueraren jarripen eta kontrola (7 gune)
- Herri Onurako Mendietako lanen ikuskatzea: larre zein basoko lanak
- Oñatiko Baratza Parkearen jardunaren jarripena eta ikuskatzea (aisialdiko ortuak)

##### ZERBITZUAK:

- Tabernetako terrazen okupazioa
- Zoru publikoaren okupazioa
- Autobusen ordutegi aldaketak iragartzeko kartelak jartzea.
- Asteroko azoka

##### JAKINARAZLEA

- Udalaren akordio eta erabakien jakinarazpenak egitea.
- Hirigintza-diziplina gaietan Hirigintza Batzordeak proposatutako edo agindutako errekerimendu edo baldintzetarako informazioa eman.

- Herritarrei obra, landa eta hiri-katastroari buruzko gaietan informazioa eman eta kontsultei erantzun.

Eta, oro har, bere kategorian haren arduradun hierarkikoak eskatzen dizkion egiteko guztiak.

### 3.- Parte hartzeko baldintzak

Hautapen probetan parte hartu ahal izateko, eskaera orriak aurkezteko epea amaitu aurretik izangaiek ondorengo beharkizunak bete beharko dituzte:

- a) 16 urte beteak edukitzea eta derrigorrez erretiratzeko adina ez gainditzea.
- b) Europako Batasuneko estatu kide bateko nazionalitatea edukitzea, edo Europako Batasunak egin eta Espainiak berretsitako nazioarteko hitzarmenen bidez langileen zirkulazio askea duten estatuetakoa izatea. Aurkez daitezke, halaber, Europako Batasuneko kide den estaturen bateko nazionalitatea dutenen ezkontideak ere, baldin eta zuzenbidez banatuta ez badaude, bai eta nazionalitate hura dutenen ondorengoak eta haren ezkontide zuzenbidez banatu gabearen ondorengoak ere, 21 urte baino gutxiago badute, edota gehiago izanik ere haien kontura bizi badira.
- c) Eraikuntza eta obra zibila arloko Goi mailako tituluaren jabe izatea edo hori lortzeko eskubideak ordaindu izana.
- d) Eginkizunak betetzeko behar den gaitasun funtzionala edukitzea
- e) Diziplina espedientearen bitartez inolako Herri Administrazioaren zerbitzutik baztertuta edo herri eginkizunak burutzeko ezgaiturik ez egotea. Atzerritarrek egiaztatu behar dute beren estatuan funtzio publikoan aritzea debekatzen dien diziplinako zigorririk edo zigor penalik ez dutela.
- f) 3. hizkuntza eskakizunaren pareko euskara maila egiaztatuta izatea.

Bitarteko funtzionarioen izendapena egiteko unean, izendatuek bete beharko dituzte ezarrita dauden baldintza guztiak.

- g) Administrazio Publikoen Zerbitzuko langileen Bateriaezintasunei buruzko 53/1984 Legean ezarritakoaren arabera, ezintasun edo bateraezintasun lege kausaren batean sarturik ez egotea.

### 4.- Eskaerak

Hautapenean parte hartzeko eskaera-orriak Oñatiko Udaleko Alkateari zuzendu behar zaizkio eta ondoko baldintzak bete behar dituzte:

- a) Parte hartu nahi duten pertsonak eskaera orriak aurkezteko epea bukatzen den datan, 3. oinarrian eskatzen diren baldintza guztiak betetzen dituztela adierazi beharko dute eskaera orrian.
- b) Eskaera-orriak Oñatiko udaleko Erregistro Orokorrean aurkeztu behar dira, behar bezala beteta, oinarri hauen iragarkia udaletxeko iragarki taulan eta [www.oñati.eus](http://www.oñati.eus) web orrian argitaratu eta hurrengo egunetik kontaktzen hasita 15 laneguneko epean.

c) Era berean, urriaren 1eko 39/2015 Legeak, Administrazio Publikoen Administrazio Prozedura Erkidearenak, 16.4 artikuluan izendatzen dituen bideetatik ere aurkez daitezke eskaerak.

## 5. Aurkeztu beharreko agiriak

Eskaera orriarekin batera, honako agiriak aurkeztu beharko dira:

-Nortasun agiriaren fotokopia

-Deialdian parte hartzeko eskatzen den tituluaren fotokopia

-Deialdian ezarritako euskara maila duela akreditatzen duen tituluaren fotokopia, tituluaren jabe den kasurako

-Eskaera-orrian adierazi beharko dira alegatzen diren merituak, eta izena ematearekin batera hoiak egiaztatze dokumentazioa aurkeztu beharko dutelarik.

a.- Emandako zerbitzuak egiaztatze, ziurtagiriak aurkeztu beharko dira; arlo publikoan eskuraturiko esperientzia egiaztatze zerbitzu horiek eman diren Administrazio funtzionario eskudunak egindako ziurtagiria izan beharko du eta egindako lanaren iraupena eta eginkizunak zehaztu beharko ditu.

Arlo pribatuan emandako zerbitzuen kasuan, lan kontratua aurkeztu beharko da, eta horretaz gain, izangaien lan-bizitza egiaztatzen duen dokumentua ere aurkeztu beharko da, Gizarte Segurantzaren Diruzaintza Orokorra emandakoa. Aurkeztutako egiaztasun bidez, betetako lanpostua eta bere funtzio nagusiak adierazi beharko dira.

b.- Prestakuntza osagarria egiaztatze, ikastaroa antolatu duen organo ofizialak emandako ziurtagiriak edo lortutako tituluen fotokopia konpultsatuta aurkeztu beharko dira. Jasotako prestakuntza ekintzaren edukia eta iraupena (ordutan) garbi azaldu beharko da. 30 ordu baino gutxiagoko iraupena duten ikastaroak ez dira kontuan izango.

## 6.- Izangaien onarpena

Eskabideak aurkezteko epea amaituta, onartutako eta baztertutako izangaien behin behineko zerrendak onartu eta argitaratuko dira Oñatiko Udalaren iragarki taulan eta web orrian ([www.oñati.eus](http://www.oñati.eus)).

Onartutakoen zerrendatik baztertuak izan direnek hiru laneguneko epea izango dute, zerrendak iragarki taulan argitaratu eta hurrengo egunetik kontatzen hasita, baztertuta geratzea eragin duten akatsak edo ez-egiteak zuzentzeko, edo zerrenden aurkako erreklamazioak aurkezteko.

Behin behineko zerrenda automatikoki behin betiko bihurtuko da, baldin eta erreklamaziorik ez bada aurkezten. Ebazpen horretan behin betiko zerrenda onartuko da, eta lehen esandako eran argitaratu egingo da.

## 7.- Epaimahai kalifikatzailea

Epaimahaia, Epaimahaiburuak, idazkariak eta beste hiru kidek osatuko dute eta Alkateak izendatuko ditu. Epaimahaia osatzen duten titularren zerrenda udaleko iragarki taula eta web orrian argitaratuko da.

Epaimahaiaren eraketa teknika izango da batez ere, eta boto eskubidea duten kide guzti-guztiak izango dute deitutako lanpostuetarako eskatzen den titulu edo ikasketa maila berdina edo goragokoa, eta kideen erdiek gutxienez bete nahi den lanposturako eskatzen den ezagutza arloko titulazioa eta espezializazioa eduki beharko dute.

Mahaikideek ez dute esku hartuko, edo uko egin ahalko dute, Sektore Publikoaren Araubide Juridikoa onartzen duen urriaren 1eko 40/2015 Legeko 23 eta 24 artikulutan jasota dauden egoeretako bat gertatzen denean

Aholkulari espezialistak egon ahal izango dira, egokiak iruditutako probak programatzeko edo ebaluatzeko. Aholkulari horiek beren espezialitatearen arloan laguntza ematera mugatuko dira.

Epaimahaiak urriaren 1eko 40/2015 legearen 15.etik 18.era bitarteko artikuluen arabera jardungo du. Nolanahi ere, epaimahaikideak lehendakariaren aginduz bilduko dira eta bilera hori hautatze probak hasi baino lehenago egin behar da, behar adina denborarekin. Bilera baliagarria izan dadin, nahitaezkoa da Epaimahaiburua eta idazkaria (hala dagokionean, haien ordezkariak) eta -gutxienez epaimahaikideen erdia bileran izatea.

Epaimahaiak, hala behar izanez gero, arau hauek aplikatzearen ondorioz sor daitezkeen zalantza guztiak ebatzi ahal izango ditu. Era berean, probak egiteko beharrezko diren moldaketa guztiak egin ahal izateko neurri egokienak hartuko ditu.

Hautatutako izangaiak jabetza hartu aurretik uko egiten badio, proposaturiko izangaien ondorengo izangaiez osaturiko zerrenda osagarria eskatu ahal izango zaio epaimahaiari.

Izangai batek ere ez balitu baztertzaileak diren proba guztiak gaindituko, deialdia hutsik geratuko da.

Epaimahai Kalifikatzaileak erabateko autonomia funtzionalarekin jardungo du, betiere prozeduraren legezotasuna zainduz eta haren objektibotasuna bermatzeko ardura izanez. Era berean, ordenamendu juridikoaren arabera, honako oinarrien aplikazioan sor litezkeen zalantza guztiak ebatziko ditu eta lehiaketa-oposizio honen nondik norakoak ordena onean burutzeko beharrezko diren erabakiak hartuko ditu, oinarrietan aurreikusi gabeko kasuei buruz hartu beharreko irizpideak ezarriz. Hautaketa prozesuko edozein unetan, baldin eta Epaimahai Kalifikatzaileak jakiten badu hautagaietakoren batek ez duela betetzen deialdi honek eskatzen dituen baldintzetakoren bat, interesatuari entzun eta gero, prozesutik kanporatzea proposatu beharko dio organo eskudunari, hautagaiak eskabidean adierazitako okerrak edo gezurrak jakinaraziz.

## 8.- Oposizioaldia

Deialdi bakarra egingo da. Izangaiek NANA eraman beharko dute probetara, identifika ditzaten. Oposizio fasean honako ariketak izango dira:

1. — Ariketa - Teorikoa- ZATI OROKORRA.- Nahitaezkoa eta baztertzailea.

Idatziz erantzun beharko zaie deialdiko gaitegi orokorreko gaiei edo/eta funtzioei buruzko galderei edo gai jakinen bati. Epaimahaiaren eskuetan geratuko da ariketa mota finkatzea. Ariketa hau gehienez 10 punturekin baloratuko da, eta gainditzeko, gutxienez 5 atera beharko dira.

2. - Ariketa- Teoriko-praktikoa- ZATI BEREZIA— Nahitaezkoa eta baztertzailea

Idatziz erantzun beharko zaie deialdiko gaitegi bereziko gaiei edo/eta funtzioei buruzko galderei edo gai jakinen bati, bai eta supostu praktikoei erantzuna eman ere. Epaimahaiaren eskuetan geratuko da ariketa mota finkatzea. Ariketa hau gehienez 30 punturekin baloratuko da, eta gainditzeko, gutxienez 15 atera beharko dira

3. Ariketa. Euskarako proba. 3 HE

Deialdiko 3. oinarriko f) atalean exijitutako euskara maila egiaztatzeko agiririk aurkeztu ez dutenek, eskatutako hizkuntza gaitasuna egiaztatu beharko dute dagokion frogaren bitartez. Froga egiteko eguna Oñatiko Udaletxeko iragarki taulan argitaratuko da.

Azterketa honek ez du inolako balio ofizialik izango 3. hizkuntza eskakizuna egiaztatzeko. Lanpostu honen hautaketa prozesuan parte hartzeko besterik ez du balioko, eta lortutako emaitzen arabera, hautagaiak Gai/Ez gai bezala sailkatuko da.

Ariketa hau ez dute egin beharko apirilaren 15eko 86/1997 Dekretuan eta euskararen ezagutza egiaztatzen duten titulu eta ziurtagirien arteko baliokidetzak finkatu eta Hizkuntzen Europako Erreferentzi Marko Bateratua egokitzeo aplikagarria den araudian ezarritako aukeren bidez gainditu dutela ziurtatzen duten izangaiak, hain zuzen 3. hizkuntza eskakizuna edo baliokidea den titulu baten jabeek

## 9.- Lehiaketa

Eskaera-orrian adierazitako eta behar bezala egiaztatutako meritua bakarrik balioetsiko dira. Deialdi hau Udaletxeko tabloian argitaratzen den egunera arte lortutakoak bakarrik kontuan hartuko dira.

### a) Lan-eskarmentua

Lanpostuaren funtzioekin zerikusia duen lan-eskarmentuagatik gehienez ere 10 puntu emango dira. Lan eginiko hilabete bakoitzeko 0,20 puntu emango dira gehienez jota ere; puntuaketa zehazteko, egindako lanak eta lanpostu honen funtzioen arteko lotura izango da kontuan.

Administrazio publiko batean emandako zerbitzuak egiaztatzeko, ziurtagiriak aurkeztu beharko dira; zerbitzu horiek eman diren Administrazioako funtzionario eskudunak egindako ziurtagiria izan beharko du.

Esparru pribatuan egindako lanean kasuan, lan kontratua eta Gizarte Segurantzako Diruzaintza Orokorrak ematen duen lan bizitzaren agiria aurkeztu beharko da.

Aurkeztutako egiaztagirietan, lan kontratua edo izendapenaren iraupena, lanaldia eta betetako lanpostua eta bere funtzio nagusiak adierazi beharko dira.

### b) Prestakuntza osagarria

Lanpostuaren edukiarekin zerikusirik duten egindako graduatu- ondoko unibertsitate-ikastaroak edo unibertsitate batek emandako master-ikastaroak; gehienez ere 2 puntu eta funtzioekiko lotura izango da kontuan.

Erakunde ofizial batek antolatutako prestakuntza-ikastaroak, jardunaldiak, etab. baloratuko dira, 0.005 puntu ordu bakoitzeko, baldin eta lanpostuaren edukiarekin zerikusirik duten. Alor honetan, gehienez ere 2,5 puntu lortu ahalko dira.

Horretarako beharrezkoa izango da prestakuntzaren xedea eta iraupena zehazten duen bertaratze ziurtagiria edota diploma aurkeztea. 6 orduz berako prestakuntza saioak ez dira kontuan izango. Egunetan finkaturiko prestakuntza saioetan, egun bakoitzeko 6 ordu kontatuko dira.

## 10. -Dokumentuen aurkezpena

Proposatutako izangaiak, gainditu dutenen zerrenda argitaratzen denetik bost lan eguneko epean aurkeztu beharko ditu hautaketa prozeduran parte hartzeko hirugarren Oinarrian adierazitako baldintzak betetzen dituela egiaztatzen duten agiriak.

Ezarritako epearen barruan, ezinbesteko arrazoiak salbu, proposatutako izangaiak ez badu aurkezten agiririk edo ez badu egiaztatzen eskatutako baldintzak betetzen dituela, ezin izendatuko da, berak egindako guztia baliorik gabe geratuko da eta izendatua izateko eskubide guztiak galduko ditu.

Kasu horretan, haren ordeztu hurrengo izangaia hartuko da, behin betiko sailkapeneko lehen tasun ordena jarraituko zaio eta eskatutako eskakizun eta baldintza guztiak betetzen dituela egiaztatzen beharko da.

#### 11.- Deialdiak eta jakinarazpenak

Hautaketa-prozesuko probak egiteko deialdiak, baita Epaimahai Kalifikatzaileak egin beharreko jakinarazpen eta komunikazio guztiak ere, Oñatiko Udaletxeko Iragarki Taulan eta Oñatiko Udalaren web orrian argitaratuz emango dira jakitera.

#### 12- Gorabeherak eta inpugnazioak

Deialdi honen, bere oinarrien eta honen ondorioz datorren egintza administratibo ororen kontra, nola Epaimahai kalifikatzailearen jardunetik ondorioztatzen direnen kontra ere, jo ahal izango dute interesatuek urriaren 1eko 39/2015 Legean eta martxoaren 10eko 364/95 Errege Dekretuan aurrikusitako kasuetan eta moduz.

### GAITEGIA GAITEGI OROKORRA

1. gaia. Udal antolaketa: Udalaren organoak. Udal eskumenak.
2. gaia. Administrazio egintzak: Kontzeptua, elementuak eta klaseak. Noiz bukatu eta epeak. Baldintzak. Administrazio egintzen baliotasuna. Eraginkortasuna. Jakinaraztea eta argitaratzea. Deuseztasuna eta deuseztagarritasuna. Izaera orokorreko xedapenak. Administrazio prozedura. Interesdunak. Administrazio Prozedura komunaren faseak: Hasi, antolatu, izapideak egin, bukatu eta exekutatzea.
3. gaia. Izaera pertsonaleko datuen babesa: xedea eta kontzeptuak. Herritarren eskubideak. Administrazioaren obligazioak. Datuen titularraren baimena. Udaleko erregistroko datuak hirugarren pertsonak erabili behar izatea ekarriko duten zerbitzuak kontratatzea.
4. gaia. 2005eko otsailaren 18ko 4/2005 Legea, emakumeen eta gizonen berdintasunari buruzkoa.

### GAITEGI BEREIZIA

5. gaia. Topografia: lur eremua aztertzea; adierazpen grafikoa. Eskala eta distantzien neurketa; altimetriak eta sestra kurbak.
6. gaia. Ordenagailuz lagundutako adierazpen grafikoa (AUTOCAD). Bistaratzeko-fitxategiak (pdf) eta editatzeko-fitxategiak (dwg). Bistaratzeko eta neurtzeko tresna informatikoak erabiltzea (dwg viewers).

7. gaia. Informazio Geografikoko Sistemak (GIS) (QGIS). Elementu funtzionalen inbentarioaren kudeaketa. Oinarrizko ezagutza.
8. gaia. Kontzeptu orokorrak: errepidea, autobidea, autobia, galtzada, erreia, bazterbidea, drainatzea.
9. gaia. Lur mugimenduak: materialak jasotzearen kontrola, obran jartzea eta saiakuntzak egitea PG-3 agiriaren arabera (Zubi eta errepideetako obretarako preskripzio teknikoaren agiria). Obra unitateen neurketa eta balioespena.
10. gaia. Luzetarako eta zeharkako drainatzeak: arekak eta erretenak. Pontoiak, bidepeko erretenak eta hodiak. Obra unitateen neurketa eta balioespena.
11. gaia. Zoru malguak. Sekzio tipoak, ezaugarriak.
12. gaia. Zabalgunea eta geruza pikordunak: materialak jasotzearen kontrola, obran jartzea eta saiakuntzak egitea PG-3 agiriaren arabera (Zubi eta errepideetako obretarako preskripzio teknikoaren agiria: materialak jasotzearen kontrola eta obran jartzea). Obra unitateen neurketa eta balioespena.
13. gaia. Gainazaleko tratamenduak: definizioa. Materialak. Motak eta dosifikazioak. Materialak jasotzearen kontrola, obran jartzea eta saiakuntzak egitea PG-3 agiriaren arabera (Zubi eta errepideetako obretarako preskripzio teknikoaren agiria).
14. gaia. Nahaste bituminosoak: definizioa. Materialak. Motak eta dosifikazioak. Materialak jasotzearen kontrola, obran jartzea eta saiakuntzak egitea PG-3 agiriaren arabera (Zubi eta errepideetako obretarako preskripzio teknikoaren agiria). Obra unitateen neurketa eta balioespena.
15. gaia. Bide markak eta seinale bertikalak: definizioa. Materialak jasotzearen kontrola, obran jartzea eta saiakuntzak egitea PG-3 agiriaren arabera (Zubi eta errepideetako obretarako preskripzio teknikoaren agiria).
16. gaia. Ibilgailuei eusteko sistemak. Hesi malguak. Hesi zurrinak. Petrilak Materialak jasotzearen kontrola, obran jartzea eta saiakuntzak egitea PG-3 agiriaren arabera (Zubi eta errepideetako obretarako preskripzio teknikoaren agiria). Obra unitateen neurketa eta balioespena.
17. gaia. Hormigoi masa eta hormigoi armatua. Definizioa. Materialak. Motak eta dosifikazioak. Materialak jasotzearen kontrola, obran jartzea eta saiakuntzak egitea PG-3 agiriaren arabera (Zubi eta errepideetako obretarako preskripzio teknikoaren agiria). Obra unitateen neurketa eta balioespena.
18. gaia. Euste elementuak material solteekin. Harri-lubetak Gabion hormak. Harri-lubeta hormigoiztatuak. Definizioa. Materialak. Materialak jasotzearen kontrola, obran jartzea eta saiakuntzak egitea PG-3 agiriaren arabera (Zubi eta errepideetako obretarako preskripzio teknikoaren agiria). Obra unitateen neurketa eta balioespena.
19. gaia. Eusteko elementuak. Hormak. Grabitate hormak eta hormigoi armatuzko hormak. Definizioa. Materialak. Materialak jasotzearen kontrola, obran jartzea eta saiakuntzak egitea PG-3 agiriaren arabera (Zubi eta errepideetako obretarako preskripzio teknikoaren agiria: obra unitateen neurketa eta balioespena).

20. gaia. Obra Publikoetako makineria. Lur mugimenduetarako makineria. Atzerako hondeamakinak. Bulldozerrak. Orga zultzaileak. Pala zamatzaileak. Dulperrak. Mota desberdinen azaleko azalpena.
21. gaia. Obra Publikoetako makineria. Geruza pikordunak obran jartzeko makineria. Motonibelagailuak. Arrabol trinkogailuak. Mota desberdinen azaleko azalpena.
22. gaia. Obra Publikoetako makineria. Nahaste bituminosoak obran jartzeko makineria. Fresatzeko makinak. Zabaltzeko makinak. Arrabol trinkogailuak. Mota desberdinen azaleko azalpena.
23. gaia. Segurtasuna eta osasuna errepideetako obra eta lanetan. Segurtasun eta Osasun Azterketa. Segurtasun eta Osasun Plana. Segurtasun eta Osasuneko koordinatzailea.
24. gaia. Segurtasuna eta osasuna errepideetako obra eta lanetan. Arrisku ohikoenak. Prebentzioa. Norbera babesteko ekipamenduak eta babes kolektiboko ekipamenduak.
25. gaia. Segurtasuna eta osasuna errepideetako obra eta lanetan. Bide segurtasuna errepideetako obra eta lanetan. Obren seinalizazioa eta behin-behineko balizamenduak. Kasuak.
26. gaia. Kontratazio administratiboa. Obra publikoaren kontratua. Figura adierazgarriak (obra zuzendaritza, kontrata, azpikontrata, etab.) eta elementuak (zuinketa, neurketa, prezio taulak, ziurtagiriak, harrera, etab.).
27. gaia. Kontratazio administratiboa. Zerbitzu kontratua. Artapen osoko kontratua. Berezitasunak. Lantalde finkoko lanak eta neurketen araberako lanak.
28. gaia. Kontratazio administratiboa. Zerbitzu kontratua. Artapen osoko kontratua. Edukia. Sartzen diren lanak. Neurtzeko eta ordaintzeko modua.
29. gaia. Kontratazio administratiboa. Zerbitzu kontratua. Artapen osoko kontratua. Neguko bide-lanak. Antolamendua eta baliabideak.
30. gaia: Hirigintzako lizentziei eta beraiek izapidetzeari buruzko ordenantza. Hirigintzako lizentziak, xedea eta eremua: lizentzia behar duten ekintzak. Lizentzia motak. Obra publikoak eta jabari publikoa. Udal obrak. Baztertutako ekintzak. Betearazpen aginduak. Araubide juridiko erkidea: irismena eta edukia. Epeak eta luzapenak. Uko egitea, artxibatzea eta berrekitea. Lizentziak iraungitzea. Lizentzien eskaeretan atzera egitea.
31. gaia: Eraikuntzako obretarako lizentziak: eskatu behar dituzten subjektuak. Eskabidea eta dokumentazioa. Proiektu teknikoak. Izapideak. Jarduera kalifikatuak. Zuzendu daitezkeen akatsak. Aldaketak.
32. gaia: Lehenengo erabilerarako lizentziak: behar dituzten ekintzak. Erantzukizuna. Eskabidea eta dokumentazioa. Administrazio publikoa. Prozedura. Urbanizazioa egiaztatzea. Agindeia, ebazpena eta epea. Lehenengo behin-behineko erabilera. Lehenengo erabilera partziala. Lurzoruaren lagapena.
33. gaia: Obra txikien lizentziak: behar dituzten eta behar ez dituzten ekintzak. Eskabidea eta dokumentazioa. Proiektu teknikoak. Izapideak. Obren erabilera. Prozedura laburtua. Baldintzak. Gerora egiten diren izapideak. Iraungipena. Obra txikietarako aurretiazko komunikazioa.



34. gaia: Jarduera hasteko aurretiazko komunikazioa. Edukia eta izapideak. Jarduera lizentziak: behar dituzten eta behar ez dituzten ekintzak. Funtzionamendua eta ikuskapen iraunkorra.
35. gaia: Obren lizentzia osagarriak; behar dituzten ekintzak. Dokumentuak eta baldintzak. Prozedura eta ebazpena. Prekariora eta iraungipena. Bide publikoa birjartzea.
36. gaia: Obretako lizentzia lagungarriak: obretako elementu lagungarrien lizentzien baldintzak. Aldamioak. Karga-jasogailuak. Hesiak. Garabiak. Siloak
37. gaia: Eskumenak hirigintza arloko ikuskapenak egiteko. Neurriak hirigintza arloko arau-hausteen aurrean: jarduketa klandestinoak, hirigintzako ordena berrezartzeko operazioak.
38. gaia: Ikuskapen-zerbitzuak. Hirigintzako ikuskapenaren helburua. Ikuskapen-zerbitzuaren txostenen edukia. Herritarrentzako informazioa. Ikuskapen-aktak. Beste ikuskapen-zerbitzu batzuekin koordinatzea.
39. gaia: Hirigintzaren arloko arau-hausteak. Arduradunak. Preskripzioa.
40. gaia: Hirigintzaren arloko zehapenak. Hertsatzeko isunak. Arduradunak. Preskripzioa.
41. gaia: Higiezinak mantentzea, konpontzea eta zaharberritzea: Jabetzaren lege-betebeharren edukia. Jabetzaren erantzukizuna. Ondasun higiezinaren kontserbaziorako eta birgaitzeko obrak. Betearazpen aginduak.
42. gaia: Eraikinen ikuskaritza teknikoak: legezko betebeharrak. EITaren agiria. EITen udal erregistroa. Udal honetan aurkeztea. Irizpenaren betekizunak. Udal Kontuhartzaitza. Obrak egitea.
43. gaia: 112/2012 Dekretua, ekainaren 26koa, eraikuntza- eta eraipen-hondakinen ekoizpena eta kudeaketa arautzen dituena. Oinarrizko kontzeptuak: helburuak eta xedeak. Aplikazio-eremua. Hondakinak sortzen dituzten pertsonen betebeharrak. Udal honetan aurkeztea. Hondakinak ondo kudeatu direla egiaztatzea. Bigarren xedapen iragankorra.
44. gaia: Eraikinetako kalitate eta higieneko baldintzak: lokalaren, gelaren, etxebizitzaren eta etxearen definizioak. Lokal eta bizigiletako aireztapen eta argiztapen baldintzak. Gutxieneko etxebizitza. Bizigelen gutxieneko neurria. Komunitateko baldintzak. Sukaldeko baldintzak. Etxebizitza programari buruzko baldintzak. Barruko etxebizitzak.
45. gaia: Solairuetako eta eraikuntzaren hegoaldeko baldintzak: sotoek bete beharreko baldintzak. Beheko solairuak bete beharreko baldintzak. Goiko solairuek bete beharreko baldintzak. Hegalduraren mugak. Fatxadako irtenguneak.
46. gaia: Aparkalekuetako eta garajeetako baldintza bereziak. Ibilgailu-sarbideetako baldintzak. Oinezkoen sarbideen baldintzak. Lokaletako altuera. Itzaroteko lautadak. Sarbide-arrapalak. Zirkulaziorako kaleak. Aparkaleku-plazetako baldintzak.
47. gaia: Estetikako baldintzak: beheko solairuen tratamendua. Fatxadak aldatzea eraikuntza baten osotasuna kontuan hartuta. Fatxadetako instalazioak. Iragarkiak eta markesinak. Olanak. Mehelinak.
48. gaia: EKT DB SI, Segurtasuna suteen aurrean. SI 3 eta SI 4 sekzioen ikuskaritzaren alderdi esanguratsuak: Ateak ebakuazioko ibilbideetan. Ebakuazio bideen seinaleztapena. Suaz babesteko instalazioen dotazioa. Suteen aurka babesteko eskuzko instalazioen seinaleztapena.

49. gaia: EKT DB SUA erabilerako segurtasuna eta irisgarritasuna, SUA 1 eta SUA 9 sekzioaren ikuskapenaren alderdi esanguratsuak: segurtasuna erortzeko arriskuen aurrean. Desnibelak. Eskailerak. Arrapalak. Irisgarritasuneko baldintza funtzionalak.
50. gaia: 1627/1997 ED, segurtasun eta osasuneko gutxieneko xedapenak eraikuntza obretan, oinarritzko kontzeptuak: definizioak. Segurtasun eta osasun arloko koordinatzaileen izendapena. Segurtasun eta osasun azterlanaren edo segurtasun eta osasun azterlan oinarritzkoaren derrigortasuna obretan. Segurtasun eta osasun azterlana. Segurtasun eta osasun azterlan oinarritzkoa. Laneko segurtasun eta osasunaren gaineko plana. Segurtasun eta osasun alorreko koordinatzailearen betebeharrak obra egitean. Informazioa lan arloko agintaritzari. Obretan segurtasunaren eta osasunaren arloan aplikatu behar diren gutxieneko xedapenak.
51. gaia: Instalazio publizitarioen inguruko araudia. Xedapen orokorrak. Diziiplina-araubidea. Publizitatea.
52. gaia: Bizitoki-eraikinetako lokaletan etxebizitzak jartzeko araudia. Arau orokorrak. Bizigarritasuneko eta instalazioen baldintza teknikoak. Estetikari buruzko baldintzak. Elementu komunak.
53. gaia: 68/2000 Dekretua, apirilaren 11koa, irisgarritasunaren inguruko arau teknikoari buruzkoa, (EHAA: 2000ko ekainaren 12). 3. Eranskina: Eraikinetako irisgarritasunari buruzko baldintzak: eraikinen barruko aldera sartzeko bideak. Barne-komunikazioak. 5. Eranskina: Eraberritze, zabalkuntza edo aldaketa obrak urbanizazio eta eraikinetan.
54. gaia: 314/2006 Errege Dekretua, Eraikuntzaren Kode Teknikoa onartu duena: xedea. Aplikazio-eremua. EKTaren edukia. EKTaren dokumentu aitortuak eta erregistro orokorra.
55. gaia: Espazio publikoak. Ikuskapenaren alderdi esanguratsuak espazio publikoan jarduketa jakin batzuk egiteari buruz: Obrak bide publikoan egitea eta seinaleztatzea. Edukiontzia jartzea eta eskonbroa ateratzea. Obrako beste elementu lagungarri batzuk jartzea.
56. gaia: Ostalaritzako establezimenduen inguruko araudia. Arau orokorrak. Aireztatze eta hosgabetze baldintzak. Talde osagarriaren establezimenduak. Distantziak neurtzeko irizpideak
57. gaia: 63/2019 DEKRETUA, apirilaren 9koa, komunitateko konpostaje-instalazio eta -jardueren araubide juridikoa eta baldintza teknikoak ezartzen dituena
58. gaia: Konpostatze prozesuaren oinarriak
59. gaia: Gipuzkoako udalerrien auzobideen erabilera ordenantza ereduak
60. gaia: 7/2006 Gipuzkoako Mendien Foru Araua (Herri Onurako Mendiei dagokiena)